

MATERIALISMO HISTERIKOA

Gaixo



UXUE APAOLAZA LARREA

Gaixo nago, etxetik atera gabe egoteko moduan, medikuaren bajarekin, inguruko onespenearekin. Gaixo nago. Alegia, nire energia da normalean iluntzean etxeratutakoan izaten dudana, baina egun osoan. Eta gorputza tranpa bat da, beste behin ere, eta harrokeria gorrotagarritz kaiolatzen nau bere nagusitasunaren erakustaldi gupidagabe batean. Ni gabe ez zara ezer. Eta ezin duzu ezer egin, irakurtzea Everest igotzea irudituko zaizu, idaztea Txindoki. Aspergarria dirudi, baina ez da, hori da okerrena. Gorputzaren beste bihurrikeria bat. Garunak, hor barruan, ez dio aritzeari uzten, eta ohean eserita, sofan etzanda, negar absurdora edo arnasesura daramaten bideak hasten ditu, beldur obsesibozko espiraletan. Edo (sukarrez?) mozkortuta dirudi, eta komeni ez zaizkizun deiak egitera tentatzen zaitu, afektuen sublimazio sentimental-nostalgiko barkaberetan: tranpantjoa sinesten baduzu, ordea, paretaren aurka ostiatzen zara. Baina irabazi egingo diot gorputz harroputz honi. Bere botereak diseinatu zirenean, ez zegoen pantailarik. Ez zegoen Internetik. Eta orain bai. Eta horrek balio du egunero etxeratzeko naizenerako ere.

Ez dakit nola iritsi naizen Pasoliniren San Mateoren ebanjelioari buruzko solasaldi batetik Bauhaus eskolako mozorro festetara, Ittinen koloreetara, Amancio Williams-en antzokira, eta Kokoschkaren panpinera. Miguel Angelen hatz arteko distantziatik, Ribera gazteari buruzko erakusketa batean behin ikusitakora: eta, egia da, pantailan ez nau harrapatu El Pradoko erakusketan minutu luzez egin zuen eran. Baina hor daude Maria Magdalenaren ezpainak, eta Jesusen oinak. Eta distantzia hori. Eta sortzen duen tentsioa. Agian ez da pantaila, agian adina da. Orain nazka pixka bat ematen dit. Oinak.

Gure belaunaldikoak programatuta gaude Interneten eta pantailen kontra aritzeko. Eta, beraz, errudun sentitzeko kontsumitzen ditugunean. Batzuetan eman digutenari gor. Berez gertatzen ari zenarekiko itsu. "Zenbat denbora pasa duzu gaur...". Maitemintzen. Izorra dadila nire gorputza, izorra daitezela gure gorputz bananduak, ez zekiten Internet asmatuko zenik. Ez dakit orain Sokuroven Hermitagea ikusi, Quattrocentoari buruzko hitzaldi bat, edo Pergolesiren Stabat Matera entzun. Gaixo nago, bai. ●

EZ HANKA EZ BURU

ADUR LARREA

www.adurlarrea.com



MOTZEAN

Energia konpainien gaineko zerga berezia bertan behera uztea adostu du Espainiako Gobernuak, EAJ eta Juntsek. Enpresek presio handia egin dute azken boladan. Bankuen gaineko zerga ere leundu nahi dute, eta EAEn kasuan bertako ogasunaren eskutan utzi nahi dute eskumena.

Komun idorrek instalatu dituzte Hendaiaiko San Bixente ikastetxean, trantsizio ekologikoaren izenean. 12 m³ko zulo batean batzen da guztia, urtean 4-5 aldiz hustuko dutena.

Milaka gazte elkartu dira Altsasun, aurtengo Gazte Topagune Sozialistan. Mahai-inguru eta solasaldiez gain, gerraren eta faxismoaren aurkako manifestazio bat egin dute.

Israelek UNRWA Palestinatik kanporatzeko legea onartu du. Errefuxiatu palestinarrei giza laguntza emateko lan egiten duen NBERen agentziari jarduna galarazi diote.

Nazio Batuen Erakundeak Israeli armak eta munizioa blokeatu diezaiela eskatu dute Liga Arabiarrek, Islamiar Kooperazioaren Antolakuntzak eta 52 herrialdek.